

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016  
EUROPAKO KULTUR HIRIBURUA  
CAPITAL EUROPEA DE LA CULTURA  
DSS2016.EU




-  
*anjel*  
*lertxundi*  
-

# *demagun* *ehun urte barru*



ELKARRIZKETAK  
CONVERSACIONES

KARTA ZURIAK  
CARTAS BLANCAS



***“Hemendik ehun urtera,  
artean gure hizkuntza existitzen bada...”***

Witold Gombrowicz-ek Czeslaw Milosz-i gutun batean, poloniar  
literaturaren etorkizunaz ari direlarik.


---

***“Si dentro de cien años nuestra lengua todavía existe...”***

Witold Gombrowicz a Czeslaw Milosz, reflexionando en torno al  
futuro de la literatura polaca.







**I**dazle zein itzultzaile baten lan-tresna -hizkuntza- kinka larrian edo osasuntsu egotea ez da muntarik gabeko auzia ez idazlearentzat ez bere lanarentzat. Zer nolako eragina ote du tradizio oparo batetik idazteak edo ia tradiziorik gabeko urritasunetik; gauza bera ote da aspaldi estandarizatutako hizkuntza batean eta batu gabe batean aritzea; munta bera ote du aspaldi handiko ofizialtasunetik edo ofizialtasun berri eta urri batetik jarduteak. Berdin begiratzen ote zaio munduari hizkuntz-harremanen hegemoniatik edo diglosiaren eraginpetik...

**Mundua globalizazioaren bidean, hizkuntza gutxituetako literaturak ere bertan. Mundua pentsatzen, mundua esaten.**

***Gaur. Ehun urte barru, auskalo.***

Que la herramienta de trabajo de un escritor o traductor (es decir, la lengua) se encuentre en una situación crítica o goce de buena salud no es cuestión baladí ni para el escritor ni para su obra. ¿Qué influencia tiene escribir con el respaldo de una rica tradición literaria o con escasa tradición? ¿Es lo mismo utilizar una lengua estandarizada hace tiempo o una que aún no ha sido unificada? ¿Tiene el mismo peso hablar al amparo de una oficialidad secular o al de una exigua y recién estrenada? ¿Se contempla el mundo de la misma manera desde el lado hegemónico de las relaciones lingüísticas y desde el tour de force al de la diglosia?

El mundo está globalizándose, y en la globalización están las literaturas de las lenguas minoritarias. Pensando el mundo, diciendo el mundo.

***Hoy. Dentro de cien años, quién sabe.***

-  
**Anjel  
Lertxundi**  
-

# 12

*abendua / diciembre*

-

## *demagun denbora ez dugula lagun*

Hegemonikoak ez diren hizkuntzetako literaturek ba ote duten aukerarik sorkuntzari eta hizkeren erabilera biziari eusteko, aldi berean antilingua gisako hizkera unibertsal utilitarista bezain gris baten mende egonda.

Hegemonikoek ez diren hizkuntzetako literaturek zer zerga klase ordaindu beharko duten eguneroko jardun espresiboenean bezala elaborazio artistikoan ere.

Hegemonikoak ez diren hizkuntzetako literaturek eusterik izango ote dioten espresibitateari; eta eusten ez badiote, nola den ezinezkoa iraupena.

¿En qué medida pueden las lenguas no hegemónicas hacer frente a la creación y al uso activo de sus variedades en tanto en cuanto está imponiéndose una antilingua universal tan utilitarista como gris?

¿Qué clase de impuesto deberán pagar las literaturas de las lenguas no hegemónicas en lo que al habla cotidiana más expresiva y a la elaboración artística se refiere?

¿Están las literaturas de las lenguas no hegemónicas en posición de preservar su expresividad? En caso negativo, ¿de qué manera se verán abocadas a su desaparición?

*koordinatzailea / coordinador*

Anjel Lertxundi

*laguntzailea / colaborador*

Harkaitz Cano

*musika / música*

Antton Valverde

*moderatzzailea / moderadora*

Goizalde Landabaso

*hiz-kuntzak / idiomas*

euskara, gaztelania, frantsesa

euskera, castellano, francés



Joan Tomás

**J**avier Cercas (Cáceres, 1962) idazlea eta literatura espainiarreko irakaslea da Gironako Unibertsitatean. Hogeita hamar hizkuntzatarara baino gehiagora itzuli dira bere liburuak, eta sari ugari jaso ditu Espainian nahiz nazioartean. Horien artean aipatzekoak dira Espainiako Narratiba Sari Nazionala "Anatomía de un instante" (2009) lanarengatik edo, azkenekoen artean, Pekingo urteko atzerriko eleberrri onenaren saria "El impostor" (2014) obrari esker. Bere obra guztiagatik, Turingo Liburu Azokako Nazioarteko Saria jaso zuen 2011 urtean, eta Ulysse Saria 2012an.

Javier Cercas (Cáceres, 1962) es escritor y profesor de literatura española en la Universidad de Gerona. Sus libros han sido traducidos a más de treinta idiomas y han obtenido numerosos premios nacionales e internacionales; cabe destacar el Premio Nacional de Narrativa por "Anatomía de un instante" (2009), o, entre los más recientes, el Premio a la Mejor Novela Extranjera del Año de Pekín por "El impostor" (2014). Por el conjunto de su obra ha sido galardonado con el Premio Internazionale del Salone del Libro di Torino en 2011 y el Prix Ulysse en 2012.



**A**dan Kovacsics-ek (Santiago, Txile, 1953), idazle austriar eta hungariarren lanak itzuli ditu gaztelaniara; Zweig, Schnitzler edo Kertész, besteren artean. Baita literatura alemaneko klasikoen lanak ere, besteak beste Goethe eta Kafkarenak. Hizkuntzekiko ardurak bultzatuta, zenbait saio argitaratu ditu hizkuntzen auziaz. Espainiako Kultura Ministerioaren Itzulpengintzako Sari Nazionala eta Austriako Literatur Itzulpengintzako Estatu Saria jaso ditu.

La labor como traductor al español de Adan Kovacsics (Santiago de Chile, 1953) se centra en obras de autores austríacos y húngaros como Zweig, Schnitzler o Kertész. También ha traducido a clásicos de la literatura en alemán como Goethe o Kafka. Fruto de sus preocupaciones lingüísticas ha publicado varios libros y escritos. Es Premio Nacional de Traducción del Ministerio de Cultura de España y Premio Estatal de Traducción Literaria de Austria.



© P.O.L. / Yann Diener

**M**arie Darrieussecq-ek (Baiona, 1969) bere lehen eleberria, "Truismes" ("Ahardikeriak" izenarekin argitaratua euskaraz), kaleratu zuen 1996an. Berehalako arrakasta lortu zuen eta 44 herrialdetan itzulitako *bestsellera* izan zen. Frantziako «nobelista gazterik onena» izendatu zuen 1998an The New Yorker aldizkariak. Literatura garaiakidearen ahots garrantzitsuenetako bat da gaur egun. "Il faut beaucoup aimer les hommes" eleberriarekin Prix Médicis eta Prix des Prix literatur sariak irabazi zituen 2013an, argitaratu zen urte berean.

Marie Darrieussecq (Bayona, 1969) publicó en 1996 su primera novela, "Truismes" ("Marranadas"), que fue un éxito instantáneo y se convirtió en bestseller, traducida en 44 países. The New Yorker la describió como "la mejor novelista joven" de Francia en 1998 y con el tiempo se ha asentado como una de las voces más importantes de la literatura contemporánea. Su novela "Il faut beaucoup aimer les hommes" recibió el Premio Médicis y el Prix des Prix en 2013, el mismo año de su edición.

-  
**parte hartzaileak**  
participantes  
-

# 13

*abendua / diciembre*

-

*demagun itzultzailea dela  
mamua / ghost in translation*

Irakurlea jabetu ez arren, liburuan ezkutuan dabilen mamua da itzultzailea. Idazleak, aldiz, ongi daki ezinbestekoa dela, itzultzailearen lanagatik ez balitz ez litzakeela deus bere ama hizkuntzatik kanpo. Hizkuntz komunitate ttipietako egileek, are presentago dute zeregin hau: euren burua itzultzen dutelako batzuetan, edo eta, irakurle eleaniztun diren heinean, ele ezberdinen interferentziak jasotzen dituztelako etengabe, baita euren ama hizkuntzan idazten dutenean ere. Zein da oharkabean pasa beharko lukeenak uzten duen lorratza?

Aunque el lector no sea consciente, el traductor es un fantasma que anda oculto en el libro. El escritor, en cambio, sabe muy bien que es imprescindible, ya que si no fuera por la labor del traductor no sería nadie más allá del campo de su lengua materna. Los autores en lenguas de comunidades pequeñas tienen aún más presente esta labor: porque se traducen a sí mismos en ocasiones o porque, siendo lectores políglotas ellos mismos, reciben interferencias de las distintas lenguas continuamente, incluso cuando escriben en su lengua materna. ¿Cuál es el rastro que deja aquello que debería pasar desapercibido?

*koordinatzailea / coordinador*

Anjel Lertxundi

*laguntzailea / colaborador*

Harkaitz Cano

*musika / música*

Antton Valverde


*moderatzailea / moderadora*

Goizalde Landabaso

*hizkuntzak / idiomas*

euskara, gaztelania

euskera, castellano



**M**iguel Sáenz (Larache, Marruecos, 1932), Zuzenbidean doktorea eta Filologia Alemaniarran lizentziatua Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean, Itzulpengintza eta Interpretazioko honoris causa doktorea da Salamancako Unibertsitatean, Deutsche Akademie für Sprache und Dichtung Alemaniako akademia eta Espainiako Errege Akademiako kidea da eta, funtsean, itzultzailea (Franz Kafka, Bertolt Brecht, Thomas Bernhard, Michael Ende Günter Grass, Salman Rushdie...).

Miguel Sáenz (Larache, Marruecos, 1932), doctor en Derecho y licenciado en Filología Alemana por la Universidad Complutense de Madrid y doctor honoris causa en Traducción e Interpretación por la Universidad de Salamanca, es miembro de la Real Academia Española y de la Academia alemana Deutsche Akademie für Sprache und Dichtung, y, básicamente, traductor (Franz Kafka, Bertolt Brecht, Thomas Bernhard, Michael Ende, Günter Grass, Salman Rushdie...).



Melanie Lucas



Dani Blanco

**R**aul Zelik (Munich, 1968) idazle eta politologoa da. Bere literatur debuta, “Friss und stirb trotzdem”, lana izan zen 1997an. Ondoren, “Berliner Verhältnisse” (2009) eleberria eta “Lagun armatua” (2010) road-movie politikoa argitaratu zituen; Txalaparta argitaletxeak lan horiek guztiak argitaratu ditu gaztelaniaz eta azkena baita euskaraz ere bai. Petra Elserrekin batera, Joseba Sarrionandiaren “Lagun izoztua” (2001) eleberria itzuli zuen euskaratik alemanera (“Der gefrorene Mann”, 2007).

Raul Zelik (Munich, 1968) es escritor y politólogo. Su debut literario “Muerte en Kreuzberg” fue publicado en 1997. Luego siguieron, entre otras, las novelas “Situaciones berlinesas” (2009) y la road-movie política “El amigo armado” (2010), todas ellas publicadas en castellano y la última también en euskera por la editorial Txalaparta. Junto con Petra Elser, tradujo la novela “Lagun izoztua” (2001) de Joseba Sarrionandia del euskera al alemán (“Der gefrorene Mann”, 2007).

**K**arlos Cid (Madrid, 1963), Filologia Hispanikoan lizentziaduna eta Hizkuntzalaritzan dokorea, egun Euskal Filologiako irakasle dabil Madrilgo Universidad Complutensen. Itzultzailea ere bada, batez ere txekieratik euskarara: besteak beste, euskarara ekarri zuen 2009 urtean Milan Kunderaren “Izatearen arintasun jasanezina” (1984), baita Jaroslav Hašek, Josef Škvorecký eta Miroslav Holub-en lanak ere. Euskal sintaxi eta onomastika, itzulpengintza eta hizkuntza tipologiari buruzko hainbat lan idatzi ditu.

Karlos Cid (Madrid, 1963) es licenciado en Filología Hispánica, doctor en Lingüística y actualmente profesor titular de Filología Vasca en la Universidad Complutense de Madrid. Es también traductor, principalmente del checo al euskera, idioma al que tradujo en 2009 “La insoportable levedad del ser” (1984) de Milan Kundera, así como obras de Jaroslav Hašek, Josef Škvorecký y Miroslav Holub. Es autor de diversos trabajos sobre sintaxis y onomástica vasca, traducción y tipología lingüística.

-  
**parte hartzaileak**  
participantes  
-



**A**njel Lertxundi (Orio, Gipuzkoa, 1948), idazlea eta kazetaria da izatez, eta lan egin izan du zineko eta telebistako gidoilari gisa ere. Literaturaren alorrean nobelagintza, saioa eta poesia landu izan ditu bereziki euskaraz.

Saioaren alorreko Espainiako Sari Nazionala jaso zuen 2010 urtean “Eskarmentuaren paperak” lanarekin, bitan irabazi du Literaturako Euskadi Saria. Halaber, bi aldiz (1983 eta 1992an) jaso du Espainiako kritika saria narratibaren alorrean. Adituek diotenez, “Otto Pette” (1994) nobela giltzarria izan da euskara batuaren normalizazioaren bidean, eta erreferentzia ezinbestekoa euskal nobelagintza garaikidean. Lertxundiren obra gehienak itzuliak daude gaztelaniara, eta badu obra itzulia hainbat hizkuntzetara ere.

Anjel Lertxundi (Orio, Gipuzkoa, 1948) es escritor y periodista, así como guionista de cine y televisión. Su producción abarca géneros como la narración, el ensayo o la poesía generalmente escritos en euskera.

Premio Nacional de Ensayo 2010 por “Eskarmentuaren paperak”, traducida al castellano el mismo año con el título “Vidas y otras dudas”, ha obtenido en dos ocasiones el Premio Euskadi de Literatura en euskera, y en otras tantas (en 1983 y 1992) el Premio de la Crítica de Narrativa en euskera. Su novela “Otto Pette” (1994), traducida como “Las últimas sombras”, es considerada como un hito en la normalización del euskera literario, así como un referente indispensable en la narrativa vasca contemporánea. Varias de sus obras han sido traducidas a diversas lenguas.

-  
**biografia**  
*biografia*  
-

-  
*oharrak*  
*notas*  
-

-

## ***demagun ehun urte barru***

Witold Gombrowicz-en kezka batetik abiatuta, Anjel Lertxundik Donostian bilduko ditu hainbat idazle eta itzultzaile europar hizkuntza ez-hegemonikoetako literaturaren eta bere etorkizunaren inguruan gogoeta egitera, globalizazioaren eraginpean dagoen testuinguru kulturallean.

Partiendo de una preocupación del escritor polaco Witold Gombrowicz, Anjel Lertxundi reunirá en San Sebastián a varios escritores y traductores europeos para reflexionar en torno a la literatura en lenguas no hegemónicas y sobre su futuro en un contexto cultural fuertemente influenciado por la globalización.

-

## ***abendua 12 / 13 diciembre***

-

### ***aquarium donostia*** 19:00 - 21:00

Sarrera librea lekua bete arte / Entrada libre hasta completar aforo.

DONOSTIA - SAN SEBASTIAN  
**AQUARIUM**



EUROPAKO KULTUR  
HIRIBURUA

CAPITAL EUROPEA  
DE LA CULTURA